

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

1. Erakundearen izena:	Armeria Eskola LHII
2. Sektorea:	Lanbide Heziketako ikastetxea
3. Langile kopurua:	90
4. Webgunea:	www.armeriaeskola.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Armeria Eskolako jarduera nagusia lanbide heziketako irakaskuntza da. Hau da prestakuntza eskaintza:</p> <ul style="list-style-type: none">• <u>Erdi-mailako heziketa zikloak</u>: Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak eta Mekanizazioa• <u>Goi-mailako zikloak</u>: Telekomunikazio eta Informatika Sistemak, Mantentze-Lan Elektronikoa, Fabrikazio Mekanikoko Diseinua, Automatizazioa eta Robotika Industrial, Mekatronika Industrial eta Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa• <u>Espezializazio programak</u>: Kalitate Kontrol Metrologikoa eta Ekipo Elektroniko Integratuen Garapena• <u>Enplegurako prestakuntza langile eta langabetuentzat</u> <p>Beste zerbitzu batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none">• Lan Poltsa• Enpresentzat Tkgune zerbitzua (enpresen berrikuntza beharrei erantzuteko elkarlana) <p>Xedea eta ikuspegia</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Alina Ioana Ivan Enescu
Helbide elektronikoa:	normalizazioa@armeriaeskola.eus
Telefonoa:	943203244

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Laneko komunikazioa euskaraz ikastaro pilotua
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Euskarazko hezkuntza-eskaintza bermatu eta zabaltzeko asmoz, euskara zeharkako ikastaroa txertatu genuen klase orduan A ereduko ziklo batean 2019-2020 ikasturtean.</p> <p>Armeria Eskola LHIIaren Hizkuntza Proiektuaren hasieran aipatzen da Lanbide Heziketako IV planarekin lerratua dagoela. Lanbide Heziketako IV planak, bere 1.5 helburuan, honela dio:</p> <p><u><i>Euskarari arreta berezia eskaintzen dion eredu eleaniztun berri bat ezartzea, eta beste hizkuntza batzuk ikastea bultzatzea etengabe [...]</i></u></p> <p>Ikastetxeak sentsibilizazio saioak antolatzen ditu urtero. Lehenengo mailako A eta B ereduko ikasle guztiek ordu eta erdiko saioan parte hartzen dute. Aldi berean, aukera eskaini zaie hainbat urtetan doan euskara maila hobetzeko errefortzu ikastaroa egiteko klase orduetatik kanpo.</p> <p>Sentsibilizazio saioen balorazio emaitzetan euskaraz ikasteko agertutako motibazio maila handia izan arren, antolatu diren errefortzu ikastaroko izen-ematea askoz txikiagoa izan da eta ikastaroa bukatu duten ikasleen kopurua oso urria izan da faktore ezberdinak direla medio.</p> <p>Erakunde ezberdinek publikatutako datuen arabera, gero eta enpresa gehiago dira hizkuntza kudeaketa planak dituztenak eta kontratazio berrietan euskara eskatzen dutenak. Kontratazio publikoetarako euskaraz jakitea ezinbesteko baldintza bihurtzen ari da Osakidetza edota Kabia bezalako organismoetan. Ondorioz, euskarazko irakaskuntza Lanbide Heziketan bermatzeak jarraipena izango du euskaraz menperatzen duten pertsonen lan-kontratazioan aukera gehiago emanez.</p> <p>Ikastetxean erabiltzen dugun ETekin HAndiko ZIKloak (ETHAZI) ikaskuntza-eredu berrian, gaitasun edo konpetentzia teknikoetz gain, zeharkako konpetentzietan jartzen da garrantzia eta komunikazioa da horietako bat. Komunikazio gaitasunaren bi atal neurtzen dira: ahozko komunikazioa eta idatzizko komunikazioa.</p> <p>Testuinguru berri honek eraman gaitu 'Laneko komunikazioa euskaraz' ikastaro pilotua abiatzera Telekomunikazio eta Sistema Informatika Sistemak zikloan.</p>

Eibarko Udal Euskaltegiarekin adostuta, lehenengo eta bigarren mailako ikasleei mailakatze proba egin zitzaizen ikasturtearen hasieran eta bi talde sortu ziren: B2 mailara hurbiltzen zireneka eta euskaraz bat ere ez zekitenena.

Azarotik otsailera bitartean 60 orduko ikastaroa jaso zuten ikasleek. A0 maila zeukatenek astean 3 ordu jaso zituzten (40 eskola ordu), hizkuntzarekin hasierako harremana izan zuten eta euren burua eta taldea aurkezten ikasi zuten; horretaz gain, gure herriko zenbait ohitura eta bertako bizimoduaren zertzelada batzuk ezagutu zituzten. B2 maila zeukatenak (20 eskola ordu), aldiz, proiektu teknikoen ahozko aurkezpenak lantzen aritu ziren.

Lehenengo urteko esperientzia positiboa kontuan hartuta, 2020-2021 ikasturtean, proiektu pilotuaren bigarren urtean, Telekomunikazio eta Sistemak zikloaz aparte, Mantentze-lan elektronikoa zikloko ikasleek parte hartu dute. Urritik otsailera arte, hirurogei orduko bi ikastaro antolatu dira, ikasleen mailaren arabera, Eibarko AEK-ren eta Eibarko Udal Euskaltegiaren laguntzarekin.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

A0 mailako ikasleek haien burua aurkezteko grabatu ziren bideoekin jarduera bat sortu zuen HABE-k. [Hemen](#) ikusgai.